


# **FESTETAKO** PROTOKOLOA







## EDUKIA

<b>1. Zioren azalpena</b>	<b>5</b>
Toki esparrua	7
Foru esparrua	8
<b>2. Helburuak</b>	<b>9</b>
Orokorra	9
Espezifikoak	9
<b>3. Gako teorikoak</b>	<b>11</b>
Emakumeen kontrako indarkeriaren definizioa foru legearen arabera	12
<b>4. Esku hartzeko irizpideak</b>	<b>15</b>
Erreferentziazko informazioa	15
<b>5. Protokoloa kudeatzeko egiturak</b>	<b>17</b>
Festetan eraso sexistak prebenitzeko mahai iraunkorra	17
Eraso sexisten aurrean erantzuteko mahaia	18
<b>6. Jarduera-proposamenak</b>	<b>19</b>
Herritarrendako argibideak	19
Eraso sexistak	19
Sexu erasoak	20
Erakundeen erantzuna emakumeen kontrako indarkeria kasuen aurrean	21
Mankomunitatearen, udalaren eta kontzejuaren posizionamendu publikoa	21
Erakundeen jarduera-prozedura	21
Informazioaren tratamendua	23
Komunikazio publikoan kontuan hartu beharrekoak	23
Esku hartzeko irizpideak	25
Gaitzesteko deialdiaren testua	26





# 1. ZIOEN AZALPENA


Jai-guneetako eraso sexistak prebenitzeko eta artatzeko toki-protokoloaren proposamen hau aurkezten dugu, arlo horretan toki-eremuan hautemandako premiei erantzuteko; proposamena Nafarroako toki-erakundeetako berdintasun-tekniariaren sareak egin eta adostutakoa da.

Elkarlan esparru bat eskaintzen du egiturazko arazo sozial honen aurreko erantzuna eta gaitzespena batzeko eta, beraz, horien eraginkortasuna bermatzeko, gure ustez, problematika hori emakumeen kontrako desberdintasunak eta bazterkeria gure gizarte heteropatriarkal eta androzentrikoaren ondorioa baita, eta jai-guneetan gertatzen diren eraso sexistak horren adierazpenetako bat besterik ez da: jai-guneetako eraso sexistak.

Emakumeen aurkako indarkeria, emakume izateagatiko diskriminazioan oinarritua, giza eskubideen urraketa

larria da. Toki-erakundeek, beste erakunde batzuekin batera, emakumeei indarkeriarik gabeko bizitza bermatzeko erantzukizuna dute, eta ekintza edo jokabide isolatuak ez diren gertaera horiei ematen dieten erantzunak irmoa izan behar du, eta ez inprobisatua.

Emakumeen aurkako indarkeria gune askotan gertatzen da, eta, nahiz eta egunez egun herritarrek emakumeen aurkako indarkeria mota gehiago identifikatzen eta gaitzesten dituzten, oraindik ere badira normalizatuta dauden eta jai-guneetan hain erraz aitortzen ez diren beste asko. Horregatik, festak pertsona guztien errespetutik bizi behar direla aitortuz, ez da espazio horietan gertatu eta/edo justifikatu behar emakumeak diskriminatu eta kaltetzen dituen gozamen sexistarik, androzentrikorik eta misoginorik. Horregatik, festak pertsona guztien errespetutik bizi behar direla aitortuz,



ez da espazio horietan gertatu eta/edo justifikatu behar emakumeak diskriminatu eta kaltetzen dituen gozamen sexistarik, androzentrikorik eta misogynorik. Hori dela eta, egoera horien aurrean, Ultzama, Basaburua, Atetz, Anue, Lantz eta Odietako Udalek jai-guneetan emakumeen aurka egiten diren indarkeria mota guztien aurrean jarrera aktiboa izan, salaketa irmoa eta bateratua eman eta hori prebenitzeko eta desagerrarazteko lan egin behar dute.

Gainera, haien udalerrien jasangarritasunarekin duten konpromisoak berekin dakar harreman bidezkoagoen eta berdintasunezkoagoen eredu berri bat eraikitzearen aldeko apustua egitea, lurraldeetako balio patriarkal eta matxistak behin betiko baztertuko dituen. Hori lortzeko, biztanleen eta ingurunearen zaintza jarri behar dute politika publikoen erdigunean,

balio feministetatik egiten den bezala, sinetsita baitaude emakumeen aurkako indarkeriek larriki erasotzen diotela garapen jasangarri horri.

Prozesu horrek ez du erakundeen konpromisoa soilik eskatzen; izan ere, udalerrietan bizi diren askotariko eragile eta pertsonak parte hartu behar dute, eta erantzukizuna hartu, emakumeen aurka erabiltzen diren indarkeria guztiak desagerrarazteko: pertsonak, elkarteak, taldeak eta kolektiboak. Azken batean, kontua da biztanleria osoa sentitzea emakumeen aurkako indarkeria guztiak desagerraraztearen erantzule: pertsonak, erakundeak eta kolektiboak, gizon helduei eta gazteei dei berezia egitea horretan lagun dezaten eta konplize izan ez daitezen, eta emakume gazteak eta helduak bultzatzea era guztietako erasoei erantzun diezaieten eta beste emakume batzuen babesba bila dezaten.



## 1.1. TOKI-ESPARRUA

---

“Genero-berdintasuna Nafarroako toki-erakundeetan. Udaletako berdintasun-arloak planifikatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko ibilbidea”. Nafarroako Berdintasunerako Institutuak egin du dokumentu hori Nafarroako toki-erakundeetako berdintasun-teknikariekin koordinatuta, eta emakumeen aurkako indarkeria bere jarduera-eremuetako bat dela dio. Emakumeen aurkako indarkeria toki-erakundeetan izeneko 1. ildo estrategikoak neurri bat jasotzen du Nafarroan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta artatzeko koordinazio eraginkorrerako protokolo espezifikoak diseinatu, abian jarri, jarraipena egin, egokitu eta egokitzearekin zerikusia duena.

Beste alde batetik, Emakumeen Kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen 17. artikulua dio toki-

erakundeek sentsibilizazio-kanpaina instituzionalak egin behar dituztela emakumeen kontrako bazterkeriaren eta indarkeriaren gaitzespen soziala sustatzeko eta, aldi berean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko.

Horretarako, Nafarroako toki-erakundeetako berdintasun-teknikariok, toki-erakunde horietako batzuetan modu independentean egin den lanetik abiatuta, gure esperientzia eta jardunbide egokiak eskaini eta Protokoloaren proposamen adostu honetan jasotzen ditugu. Proposamen honek Nafarroako toki-administrazioen arteko helburu eta lan-estrategia komunak erakusten ditu.

## 1.2. FORU-ESPARRUA

---

Emakumeen Kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea

**17. artikulua.** “Sentsibilizazio sozialerako eta informaziorako neurriak”

**1.** Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioak eta toki-erakundeek sentsibilizazio-kanpaina instituzionalak egin behar dituzte emakumeen kontrako bazterkeriaren eta indarkeriaren gaitzespen soziala sustatzeko eta, aldi berean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko. Horretarako, behar diren bitarteko guztiak erabiliko dituzte populazio osoari helarazteko mezu horiek, eta, bereziki landaguneetako emakumeei, gazteei eta gizonezkoei, diskriminazioa eta indarkeria dakartzaten jarrerak alda daitezen.

Kanpaina horiek isla berezia izanen dute hedabide publikoetan, ikastetxeetan, eta gizarte, osasun, lan, kultura eta kirol zentroetan.

**2.** Horrekin batera, informaziorako kanpainak eta ekintzak egingen dira, emakumeek behar besteko informazioa izan dezaten haien eskubideez eta dauden baliabideez, eta arreta berezia emanen zaie talde hauei: landaguneetako emakumeak, migratzaileak, ijitoen etniakoak, desgaitasuna edo menpekotasuna dutenak, gizartean baztertuta, arriskuan edo egoera ahulean daudenak eta babesgabezia handiagoa izan daitekeen talde edo esparruak, horien artean, lan esparrua.

**20. artikulua.** “Indarkeria detektatzeko erantzukizun instituzionala” Foru Administrazioak detekzio, jarduketa eta deribaziorako protokolo bereziak prestatuko ditu bere lurralde esparruko toki entitateekin elkarlanean, eta prozesu horietan dituen inplikazioa eta eginkizunak kontuan hartuta. Protokolo horietan ildo batzuk ezarriko dira emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurrean lan egiteko.







## 2. HELBURUAK

### 2.1. OROKORRA

---

Jai-guneetako emakumeen aurkako indarkeria-egoeren aurrean udalak ematen duen erantzuna hobetzeko jarduketa homogeen eta koordinatua antolatzea.

### 2.2. ESPEZIFIKOAK

---

- Eraso sexisten prebentzioari, sentsibilizazioari, arretari eta komunikazioari buruzko prozedura sistematizatzea eta adostea.
- Jai-guneetan eraso sexistak prebenitzea, jardun ahal izateko tresnen eta estrategien bidez.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean herritar guztiak erantzule egitea.





### 3. GAKO TEORIKOAK

Nazio Batuen Erakundeak adierazten duenez, emakumeen aurkako indarkeriak dira gure ingurunean gertatzen den giza eskubideen urratze larrienetariko bat. Era berean, emakume eta gizonen arteko botere harremanetan dagoen desorekaren adierazpen baten ondorio dira, eta edozein gizarte demokratikoren garapenerako oztopo nabarmena.

Emakumeen aurkako indarkeria jendarte patriarkalen egiturazko fenomeno bat da, gizonak emakumeengan dituzten nagusitasun- eta abusu-jokabideak justifikatu dituzten balio eta arau soziokulturaletan oinarritzen dena. Indarkeria horiei normaltasun itxura eman zaie, uste baita gizonak emakumeekiko duten nagusitasuna rolen esleipen desberdinarekin bat etortzen dela. Sistemaren barnetik sortzen dira, eta diseinatutako eredu horren pean bizikidetzaren egonkortzeko elementu gisa jarduten dute. Kontrol sozialerako tresna dira, desberdintasunei eutsi eta betikotzeko.

Emakumeen aurkako indarkerien adierazpen guztiak eta horiei aurre

egiten dieten emakumeen esperientzia pertsonalak honako faktore hauen mende egoten dira: adina, klase soziala, nazionalitatea, etnia, aniztasun funtzionala, bizilekuaren administrazio-egoera emakume migratzaileen kasuan, edo emakumeen sektore jakin batzuetan beren eskubideak benetan gauzatzeko egoera kaltegarriagoak dakartzaten beste inguruabar batzuk.

Emakumeen aurkako indarkeria genero-diskriminazioak ezabatuz ezaba daiteke bakarrik. Emakumeen ahalduntzea funtsezkoa da kaltetutako prebentziorako eta emakumeen biziraupenerako, baita haurrak, gazteak eta helduak berdintasunean eta askatasunean prestatuko dituen hezkuntza ere.

Berdintasun handiagoko jendarteetarantz aurreratzeak eta teoriaren ekarpenek azaltzen dute, neurri handi batean, emakumeen aurkako indarkeriaren deslegitimazioa eta berriz kontzeptualizatzeko beharra, esparru guztietatik erantzun beharreko giza eskubideen urratze larritzat eta lehen mailako arazo estrukturaltzat hartzeko.

## 3.1. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN DEFINIZIOA FORU LEGEAREN ARABERA

---

Emakumeen kontrako indarkeria da emakumea izateagatik emakumeen kontra bideratzen dena edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero diskriminazioaren agerpen gisa eta emakumeendako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekar dezakeena, mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnak.

**Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpenak:** Indarkeria bikotean edo bikote ohian, sexu-indarkeriaren agerpen ezberdinak, feminizidioa, emakumeen eta nesken salerosketa, prostituzioa eta/edo Sexu-esplotazioa, gazteegitan ezkontzea, ezkontza hitzartua edo behartua, Emakumeen genitalen mutilazioa eta gaiari buruzko araudian jasotako beste edozein.

**Emakumeen aurkako indarkeria motak:** indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa eta sexuala.

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Foru Legeak definitzen duen indarkeria Estatuko arauarena (LO 1/2004) baino zabalagoa da eta hark baino indarkeria mota gehiago aitortzen du, azken horrek genero indarkeriaren kontzeptua erabiltzen baitu eta indarkeria hori harreman afektiboan esparrura mugatzen baitu (bikotea edo bikote ohia).

Jai-guneetan mota guztietako eraso sexistak gertatzen dira, eta horri buruz honako zehaztasun hau egin behar da:

**Eraso sexistak** normalizatuta egon dira eta jarraitzen dute egoten; hala, askotan, jokabide horiek ez dira botere-abusutzat ez larderiazko hartzen. Nahiz eta gero eta gutxiago toleratzen diren eta identifikatzen hasiak diren,

oro har, imajinario kolektiboan eraso sexistak ez dira emakumeen aurkako indarkeriarekin lotzen. Horregatik, garrantzitsua da horiek prebenitzea eta gertatzen direnean jardutea, inolako zirkunstantziarik egon gabe horiek justifikatzeko edo legitimatzeko.

**Eraso sexistak** dira emakumeen osotasun pertsonalaren eta askatasunaren aurka egiten duten jokabide guztiak. Erasoa sexistak dira jazarpen fisikoaren (musuak, besarkadak eta ukitze bortitz eta ez-onartuak, adibidez), hitzezko jazarpenaren (irainak, iruzkin misoginoak, mespretxuzkoak edo emakumeak kosifikatzen dituztenak) eta hitzik gabeko jazarpenaren (besteak beste, larderiazko eta kontrolatzeko ekintzak) formak.

Jai-guneetako eraso sexisten adierazpen larrietako bat sexu-indarkeria da, eta honako hauek nabarmentzen ditugu:

Sexu-indarkeriatzat hartzen da onartu/baimendu gabeko edozein sexu ekintza, indarkeria, mehatxua, nagusikeria edo manipulazio emozionala tarteko direla, sexu harremanak erakutsi, ikusi edo izatera behartzea barne.

Emakumeen eta neskatoen aurkako sexu-indarkeriaren adierazpenak sexu-erasoa, sexu-abusua eta sexu-jazarpena dira:

**Sexu eraso:** Sexu-askatasunaren aurkako delitua, indarkeria edo larderia dagoenean eta biktimaren baimenik ez dagoenean. Bortxaketa sexu-eraso bat da, maginatik, uzkitik zein ahotik haragitzean datzana, edota lehenengo bi bide horietako batetik gorputz-adarrak edo objektuak sartzean datzana (Zigor Kodearen 179. artikulua).

**Sexu-abusua:** Sexu-askatasunaren aurkako delitua, indarkeriarik edo larderiarik gabe eta biktimaren baimenik gabe egina.

**Sexu-jazarpena:** Sexu-askatasunaren aurkako delitua, nagusitasun-egoeraz baliatuz mesede sexualak eskatzeko jokabideak barne hartzen dituena.





## 4. ESKU HARTZEKO IRIZPIDEAK

Eraso sexisten aurkako edozein jardueratan, honako irizpide hauei jarraituko zaie:

- Emakumearen babesa eta informazioaren konfidentzialtasuna. Erasoa adingabe bati gertatzen bazaio, familiarekin harremanetan jarriko da.
- Bizirik atera den pertsonaren iritzia, intimitatea eta jarduteko moduari buruzko haren erabakiak errespetatzea.
- Koordinazioa eta jarduketa homogeneoa.
- Erasotzailea identifikatzea.
- Zurrumuruak saihestea eta moztea, batez ere toki-entitate txikietan.
- Ez birbiktimizatzea.

### ERREFERENTZIAZKO INFORMAZIOA:

- Larrialdietako telefonoa 24 ordu: Nafarroako **112 SOS**.
- Foruzaingoa.
  - o Elizondoko polizia-etxea: **948 581 864** (Anue, Lantz, Odieta, Ultzama).
  - o Altsasuko polizia-etxea: **948 56 46 14** (Atetz, Basaburua).
- Genero-indarkeriaren ondoriozko tratu txarren biktimei laguntzeko **016** informazio- eta kontsulta-telefonoa (informazioa)
- **SAM**. Laguntza juridikoko zerbitzuak. Abokatuen Elkargoaren bidez ematen den doako zerbitzua. **948 221475**
- **BAIT** (Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldeak). Telef.: **948 00 49 52** eta **948 00 49 53** – Orduetgia: astelehenetik ostegunera, 8:00etatik 19:00etara eta ostegunetan 8:00etatik 17:00etara.
- Herritarren kexei edo salaketa sozialari erantzutea: Emakumeak ez badu polizian salaketa jarri nahi, baina zer gertatu den jakinarazi nahi badu, Berdintasun Zerbitzuak kudeatutako helbide elektronikoa espezifiko batera idatz dezake: **ultzama.berdintasuna@gmail.com** edo **674 08 69 26** telefonora





## 5. PROTOKOLOA KUDEATZEKO EGITURAK



### FESTETAN ERASO SEXISTAK PREBENITZEKO MAHAI IRAUNKORRA

#### Zer da:

Festetan eraso sexistak prebenitzeko lana egiteko ardura duen mahai iraunkorra.

Mahaiak honako kideak izanen ditu: Sei udalen ordezkariak, mugimendu feministaren eta emakume taldeen ordezkariak, Mankomunitateko Berdintasun Arloa.

#### Eginkizunak:

Batzordeak honako eginkizun hauek izango ditu:

- Protokoloa hedatzea
- Festetarako sentsibilizazio-kanpainak diseinatu eta egitea

- INAI/NABI kanpaina eta beste batzuetan parte hartu eta zabaltzea
- Genero-berdintasunaren arloko gaikuntza sustatzea parte-hartzaileen artean
- Urteko lana planifikatu eta ebaluatzea

#### Funtzionamendua:

Mahaia urtean bitan bilduko da bilkura arruntean, maiatzean eta abenduan, eta bilkura berezian behar den guztietan. Deialdia Mankomunitateko Berdintasun Arloak egingo du.

#### Berdintasun Arloaren funtzioa:

Berdintasun Arloak koordinatzeko, parte-hartzeko, aholkatzeko, laguntza teknikoa emateko eta mahaiaren segimendua egiteko funtzioak izanen ditu. Mahaia dinamizatzeari eta idazkaritza lanaz arduratuko da.

## ERASO SEXISTEN AURREAN ERANTZUTEKO MAHAIA

### Zer da:

Erabakiak hartzeko organoa, eraso sexisten aurrean instituzioen erantzuna erabakitzen duena. Mahaiak honako kideak izanen ditu: Berdintasun Arloa, erasoa gertatu den udalaren eta kontzejua ordezkarri bana.

### Eginkizunak:

- Kasua aztertzea eta egoeraren ebaluazioa egitea
- Egin beharreko jarduerak erabakitzea (elkarretaratzea, komunikazioa...)
- Udalaren bandoa eginen den erabakitzea
- Erasoa sexisten aurrean komunikazio bateratua prestatzea
- Herri akusazio gisa aurkeztuko den erabakitzea (2015eko Foru Legearen 65.1 artikulua)
- Batzarra deitu eta dinamizatzea
- Batzarrari erabakien berri ematea

### Funtzionamendua:


Kontzeju bateko festetan gertatutako eraso baten berri izanez gero, kontzejua bera harremanetan jarriko da Mankomunitateko lehendakariarekin eta hura berdintasun-teknikariarekin.

- Erasoa bat gertatuz gero: Berdintasun teknikaria Foruzaingoarekin harremanetan jarriko da informazioa kontrastatzeko eta Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldeekin (BAIT) emakumearekin edo haren senideekin harremanetan jarri ahal izateko. Jarduerak Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin koordinatuko ditu.
- Festen garaian hilerok jarriko da harremanetan Foruzaingoarekin salaketaren bat egin den egiaztatzeke.

Informazioa iturri ofizialekin kontrastatu ondoren, mahaia bilduko da arestian aipatutako eginkizunak betetzeko.

### Berdintasun Arloaren eginkizunak:

Aholkularitza, informazioaren kontrastea, komunikazioa eta instituzioekin koordinatzea.





## 6. JARDUERA-PROPOSAMENAK

### HERRITARRENDAKO ARGIBIDEAK

#### Zer dira

- Komentario iraingarri eta umiliagarriak, hitzeko abusuak, irainak, pertsonari buruzko mespretxuzko komentarioak eta abar.
- Onartu gabeko kontatu fisikoen moduak, nahi ez diren ukitzeak, eta abar.
- Sinbolo sexista iraingarriak erakustea.

#### Noiz jardun

- Eraso jasan duen emakumea bazara.
- Norbait zuregana hurbildu eta eraso jasan duela esaten dizunean edo ikusten dizunean gazteen baxeretan, tabernetan edo kalean deskribatutako egoeraren bat gertatzen dela.

#### Zergatik jardun

- Eraso jasan duen emakumea babestu eta laguntzeko.

- Erantzuna koordinatzeko.
- Eraso sexistak festa-guneetatik desagerrarazteko.
- Zure ardura delako.

#### Nola jardun

- Eraso sexista bat jasan baduzu 112an urgentziatzeko arreta eskatzen ahal duzu.

Behar baduzu, zurekin dagoenari edo zauden tokian lanean ari direnei laguntza eskatu.

- Beste pertsona bat bazara: entzun, lagundu eta emakumearen erabakia eta intimitatea errespetatu. Konfidentzialtasuna bermatu. Eraso jasan duen emakumeari laguntza behar duen galdetu. Baietz esaten badizu, laguntza eskaini eta berarekin egon/joan. Nafarroako 112ra deitzen ahal da, hala nahi badu, arreta eta eskura dituen bitartekoei buruzko informazioa jaso ahal izateko.

- Saihestu eta moztu zurrumurru mota guztiak.

## SEXU-ERASOAK

### Zer dira

- Emakumea behartu eta haren askatasun sexualaren aurka egiten duten jokabide sexualak.

### Zergatik jardun

- Berehala esku hartu ahal izateko. Biktima babestu eta laguntzeko.

### Noiz jardun

- Eraso horietako bati aurre egin behar badiozu, haren berri baduzu, ikusten baduzu edo norbait laguntza bila etortzen bazaizu.

### Nola jardun

- Sexu-eraso bat jasaten baduzu, 112 zenbakira deitzen ahal duzu premiazko arreta eskatzeko. Behar baduzu, eskatu laguntza zurekin dagoenari edo zauden espazioan lanean ari denari.
- Sexu-eraso gertatuz gero, eraso jasan duen emakumearengana hurbildu eta laguntza behar duen galdetu. Norbait laguntza bila hurbiltzen bazaizu, lehenatasuna eman.
- Arretaz eta errespetuz entzun. Laguntza emozional guztia eman. Ez utzi bakarrik.

- Premiazko laguntza behar badu, deitu: Nafarroako 112 SOS.

- Geratu berarekin polizia iritsi eta erasotzailea identifikatu arte.

- Berehalako laguntzarik behar ez badu, zer egin nahi duen galdetu. Salatu nahi izanez gero, horri buruz erabakitzeke, komeni da informazioa eskatzea Emakumeendako Laguntza Zerbitzuari (Doako Arreta Juridikoko Zerbitzua, 112 SOS Navarra bidez). Salaketa jarriz gero, Emakumeendako Laguntza Zerbitzuak prozesu osoan lagunduko dio.

## OHAR GARRANTZITSUAK!!

**Bortxaketa baldin bada, garrantzitsua da biktimak arropa ez aldatzea eta ez garbitzea. Ahotiko bortxaketa bada, ez dezala ezer edan ez jan, erasotzailearen aurkako frogak desagertzen ahal baitira.**

**Foruzaingoak, ospitaleak edo osasun zentroak (biak 112) esku hartzen duenean, jakin behar du ofiziozko salaketak jartzen direla.**

## **ERAKUNDEEN ERANTZUNA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA KASUEN AURREAN**

### **MANKOMUNITATEAREN, UDALAREN ETA KONTZEJUAREN POSIZIONAMENDU PUBLIKOA**

Garrantzitsua da bat-bateko erantzunik ez abiaraztea jasotako informazioa egiaztatu arte, nahiz eta komunikabideek hori egiteko presioa egin, betiere biktimaren pribatutasuna errespetatuz.

Erantzun bat eman ahal izateko, kontuan hartuko da eraildako emakumearen familiaren borondatea. Fokua erasotzailearengan jarri behar da, ez eraildako emakumearengan.

Gertakariaren larritasunaren eta eragin publikoaren arabera, inportantea da kontuan hartzea garrantzitsua dela posizionamendu publikoa ahalik eta lasterren amaituta egotea, Mankomunitateak, udalek eta kontzejuek gertakariaren berri izan dutenetik. Sexu-erasoetan eta/edo kasu larrietan, Nafarroako Berdintasun Institutuarekin

koordinatu behar da, kasu horietarako protokolo espezifikoak baitu.

### **ERAKUNDEEN JARDUERA-PROZEDURA**

**1.** Ikerketaz arduratu den polizia-kidegoaren bidez kontrastatuko da informazioa.

**2.** Bizirik atera den emakumearekin eta/edo haren familiarekin harremanetan jartzea, kasuaren arabera, elkarrizketa pertsonalizatu baten bidez: Gertakariaren ondorioz sor daitezkeen beharrei (juridikoak, psikologikoak, baliabideei eta laguntzei buruzko informazioa, seme-alabendako arreta, eta abar) berehalako erantzun profesionala ematen zaiela egiaztatzeke edo bermatzeko. Horretarako, harremanetan jarriko da genero-indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldearekin, dagokion BAITekin. Biktimari edo haren familiari baimena eskatu udaletik gertatutakoa gaitzesteko jarduketa publikoak egiteko (haren denborak eta egoeraren bizipena errespetatuz).

**3.** Festetako eraso sexisten aurrean erantzuteko mahaia deituko da: Berdintasun Arloa, erasoa gertatu den udalaren eta kontzejuaren ordezkari

banan. Berdintasun Arloak Adierazpen Instituzionalerako proposamena prestatuko du, erantzuteko mahaiak aurkeztu eta onar dezan. Mahai hori beste eragile instituzional edo sozial batzuei informazioa emateko iturri ofizial bakarra izatea proposatzen da.

Hartu beharreko neurriak zehaztuko dira:

- Adierazpen instituzionala onartzea, ondoren osoko bilkuran onartzeko.
- Gaitzesteko kontzentrazio ofiziala deitzea. Deialdi honetan, Udalbatzak onartutako gaitzespen-testua irakurri ahal izango da. Adierazpen instituzionala irakurriko da eta, hala nahi izanez gero, mugimendu feministarena ere bai, erantzuteko Mahaiaren onespenerekin. Gertaeraren berri izan eta lehen 24 orduetan egingo da deialdi hori, betiere gertatutakoari buruzko informazio ofizial egiazkoa eta nahikoa bildu bada. Elkarretaratzean emakumeak izanen dira protagonistak (adierazpena irakurri, pankarta eraman...)
- Akusazio partikular gisa aurkeztea egokia den baloratzea.
- Gertatutakoa sareetan zabaltzea (udalaren webgunean, sare sozialetan...).

- Banderak haga erdian jartzea eta haien iraupena.

- Udaletxearen edo kontzeju-etxearen fatxadan esku lilaren olana (edo pankarta) jarri.

- Idazkaritzak gainerako toki entitateei Adierazpen Instituzionala bidaltzea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bidez haien atxikimendua eskatzeko. (Herritarrei eskerrak emateko ohar bat bidali ahal izango da, Alkatetzak sinatuta eta Udal Web gunean, Facebooken eta abarretan eskegita, baita eskerrak emateko ohar bat ere, Alkatetzak sinatuta, familiari doluminak eta babesa ematen dioten udal guztiei zuzendua, udalaren webgunearen bidez).

- Batzarrerako deia egitea (osoko bilkura bereziaren ondoren egingen da) onartu diren neurriak jakinarazteko.

- Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin harremanetan jartzea, jarduketan berri emateko eta horiek koordinatzeko.

**4.** Osoko bilkura berezirako deia egingen da, eta hara erantzuteko mahaiak definituriko neurriak eramanen dira onartu ditzan.

## INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA

Informazio guztia konfidentziala izanen da, eta kasu horretan zuzenean esku hartzen duten langileek soilik jakinen dituzte, haien erantzukizun profesionalaren arabera, indarkeria jasan duen emakumearen edo haren erasotzailearen datuak. Era berean, Mankomunitateak, Udalek, Kontzejuek eta protokoloan inplikaturiko beste entitateek saihestuko dute biktima identifikatzen edo haren ingurunearekin erlazionatzen ahal duen informaziorik ematea, haren intimitaterako eskubidea zaintzeko eta biktimizazio bikoitza saihesteko, eta erabilitako/jasandako indarkeria mota identifikatzen duten datu orokorrak baino ez dira emanen, harturiko neurriak justifikatzeko beharrezkoa baita.

## KOMUNIKAZIO PUBLIKOAN KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Erabil dadila 3. atalean proposaturiko terminologia.

- Erantzun publikoa adosteko orduan, garrantzitsua da kontuan hartzea eraso jasan duen emakumearen iritzia.
- Gertakari horiek “emakumeen aurkako indarkeria”, “Indarkeria matxista” edo “indarkeria sexista” gisa aipatzea, alde batera utzita genero-indarkeria edo etxeko indarkeria, pasio-krimena, bikote-indarkeria, etxeko indarkeria, hilketa...; izan ere, kontzeptu nahasiak dira, eta arazoaren erroa ahultzen dute.
- Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larri gisa testuinguruan kokatzea, ezin dena erantzunik gabe geratu. Agerian uztea egiturazko izaera dutela, ez direla gertakari isolatuak, eta gizonak emakumeekiko dituzten nagusitasun-eta botere-harremanekin dutela zerikusia.

- Argi uztea erasotzailea dela erantzule bakarra. Saihestu emakumea erruduntzat jotzen duten diskurtsoak, hala nola, emakumearen portaera, janzkera, erasotzailearekin duen harremana, kultura, eraso gertatu den ordutegia, salaketarik jarri ez izana eta abar aipatuz.
- Bizirik atera diren emakumeen identitatea zaintzea. Ez ematea informaziorik emakumeen jatorriari, etniari, egoera pertsonalari, familia-egoerari edo lan-egoerari buruz, ezta haien seme-alabei buruz ere, halakorik balego.
- Batzuetan, informazioa handik egun batzuetara jakiten da, edo denbora behar izaten da informazioa kontrastatzeko. Salaketa eraso gertatu eta handik egun batzuetara jartzeak ez dio indarririk kentzen salaketari.
- Erasotzailearen aurkako salaketarik ez jartzea erabakitzeagatik ere, emakumeak ez dira erantzule gisa aurkeztu behar. Kontuan izan behar da salaketa jartzea erabakitzen duten

emakumeak zer egoeratan geratzen diren, ea laguntzarik duten eta hurbileko sare sozial eta afektiboa duten, eta bi kasuetan berriz biktimizatzea saihestu. Ez egotzi errua emakumeei, eta ez justifikatu indarkeria, inolako arrazoirengatik.

- Bizirik atera diren emakumeen seme-alabak emakumeen aurkako indarkeriaren biktima zuzenak dira.
- Ahaleginak eginen dira mezuen bitartez beldurra ez bultzatzeko eta emakumeen askatasuna ez mugatzeko. Gainera, beldurra emakumeak kontrolatzeko modu bat ere bada.
- Ez da eraso bat justifika dezakeen edo bitartekaritzaren alde egin dezakeen adierazpenik egingo, legez debekatuta baitago.
- Mobilizazioak deitzearen helburua da gertakari matxista horien inguruko isiltasuna haustea, kontzientzia sortzea eta kaltea konpontzen laguntzea.



## ESKU HARTZEKO IRIZPIDEAK

Instituzioek emakumeen aurkako indarkeria gaitzesten dutenean ezinbestekoa da:

- Gertaeren konfidentzialtasuna eta emakumeen eta haien seme-alaben anonimotasuna bermatzea, haiek eta haien familiek hala eskatzen dutenean.
- Esposizio mediatikoak eragindako emakumeen birbiktimizazio oro saihestea.
- Udalaren edo Mankomunitatearen adierazpenean oinarrituriko prentsa-oharra eginen da, eta Alkatetzaren bitartez hedabideei helaraziko zaie (irratia, telebista, idatzia), tokiko, Foru Komunitateko eta Estatuko hedabideei ere (hala badagokio).
- Hedabideek elkarrizketarik eskatuz gero, Alkatetzatik Adierazpen Institutuzionalaren edukia irakurri edo erreproduzitu da.

- Kasuak hala eskatzen badu eta prentsaurrekoa egitea komeni dela baloratzen bada, Kontzejuko Batzarra (edo antzekoa) arduratuko da.

## GAITZESTEKO DEIALDIAREN TESTUA

### X ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Udalak, X eginiko osoko bilkuran, honako adierazpen instituzional hau onetsi du:

X (Udala) udalerrian gertatu den indarkeria-kasuari dagokionez, Udalak honako hau adierazten du:

- Udalak gogor gaitzesten du indarkeria sexista. Era berean, prest dago bizirik atera den emakumeari behar duen laguntza emateko, eta Udalak dituen bitartekoak haren eskura jarri ditu.
- Indarkeria sexista giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen urraketarik larrienetako bat da. Emakumeei kalte fisikoak, sexualak, psikologikoak edo ekonomikoak eragiten dizkieten edo eragiten ahal dizkieten indarkeria-ekintza guztiak hartzen ditu bere barnean, ekintza horien gaineko mehatxuak eta hertsatzea edo askatasuna arbitrarioki kentzea ere barne, edozein izanik ekintza horien esparrua (familia, lana edo gizartea), eta jendaurrean nahiz eremu pribatuan gertatu badira ere.
- Era berean, ikusarazi nahi dugu gertakari horiek egiturazkoak direla eta

emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanen ondorio direla, emakumeek gizonetik duten mendekotasuna betikotzea helburu hartuta. Hortaz, indarkeria sexista arazo publiko eta estrukturala izanik, herri txikietan ere agertzen da eta, beraz, errotik heldu behar zaio esku-hartze aktibo, integral eta koordinatu baten bidez.

- Bai instituzio publiko gisa bai herritar aktibo gisa, jarrera konprometitu izan behar dugu. Emakumeak erruduntzat jotzen dituen eta gizonak babesten dituen eredu kulturala aldatzeko deia egiten dugu.

Azkenik, Udal honen asmoa da isiltasuna hautsi, kontzientziak piztu eta herritarrak sentsibilizatzea. Hori dela eta, Udalak dei egiten du emakumeari

babesa emateko eta indarkeria mota hori gaitzesteko .....ren .....ean, rekin, XX:XXetan udaletxe aurrean eginen den elkarretaratzean parte hartzeko.

- Elkarretaratze horretan parte hartzera gonbidatzen ditu herritar guztiak, indarkeria sexistaren aurka aktiboki parte har dezaten eta eraso jasan duen emakumeari babesa eman diezaioten.

que ha sufrido la agresión.